

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredia

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 5 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</p> <p>Lehenengo eta hirugarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta bigarrenean 0,4 puntu.</p> <p>Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.</p>	50 min.	20	10
<p>IDAZMEN PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu).</p> <p>Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	75 min.	30	15

- Azterketa-koaderno **hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

2. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BOTIKEN BIDAIA LUZEA ARRAINEN HORMONETARA

Keinu erraza da: ahoa ireki eta pilula sartu. Izan liteke botika bat, antisorgailu bat... Berdin dio, bere lana egingo du hartu duenaren organismoan, eta ez da hor amaituko. Bidaia luze baten hasiera da pilula hori osatzen duten gai kimikoentzat. Gorputzak ez ditu bereganatuko osagai guzti-guztiak; adibidez, izerdiarekin edo pixarekin kanporatuko dira. Eta han joango dira komuneko zulotik behera, hodietatik. Ur-araztegiek edo depuradorek ez diete pasabidea zeharo itxiko; konposatu kimiko horien erdiek, batez beste, bere bidean jarraituko dute erreka-itsasoetaraino. Eta han, konposatu kimiko horiek oraindik indarrean daudenez, itsasoko faunari eragingo diote: ikerketa ugarik egiaztatu dute arrainengan eragina dutela botiken eta antisorgailuen konposatuek. Izan ere, antisorgailuen osagaiek arrain batzuen hormonak aldatu dituzte, sexua aldatzeraino.

EHUko (Euskal Herriko Unibertsitateko) irakasle talde baten ikerketak datu argigarriak eman zituen. Susmoa aspaldikoa izan arren, arazoari buruz ikerketa zientifiko gutxi egin dira; 1990eko hamarkadatik aurrera bihurtu da ikerketa-gai. Urdaibain, Bizkaian, egin zuten azterlana EHUko ikerlariak orain dela bost urte: arrain ar batzuetan emeen sexu-zelulak aurkitu zituzten. Ostra eta muskuiluetan ere hermafroditen kopurua handitzen eta sexu-organoetan aldaketak gertatzen ari zirela sumatu zuten. Gernika-Lumoko ur-araztegi baten ondoan ikusi zuten, hain justu. Arrazoa ere aurkitu zuten: alkilfenolak. Detergente eta kosmetikoetan daude alkilfenolak, besteak beste, horiek ere urarekin batera baitoaz ur-araztegietaraino. Itsasoko animalien sistema endokrinoari eragiten diote, baita hazteko, ugaltzeko eta babesteko sistemei ere. Manuel Soto EHUko katedradunak antisorgailuek ere arrainengan duten eraginari buruz hitz egin zuen: «Pilula antisorgailuen molekula asko hormonak izaten dira, eta eragin nabarmena dute arrainen eta muskuiluen sistema endokrinoan, ugaltzeko gai ez diren organismo hermafroditak sorraraziz».

Ikerketak berriak dira oraindik, baina guztiak ari dira antzeko emaitzak azaleratzen. Espainiako estatuan, Ebroko urei jarraituz, botiken eraginaren arrastoak aurkitu dituzte. Ebron, karpa arrak aurkitu dituzte, obariodunak. Galizian ere bai: *Nucella lapillus* barraskiloen artean, zakil txikiak dituzten emeak topatu dituzte. Frantzia, Bordele inguruko ibaietan eta Senan aurkitu dituzte ibuprofenoaren, aspirinaren eta antidepresiboen arrastoak. Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan, prozac botikaren arrastoak. Hala ere, orain arteko aurkikuntza bitxia Italian egin dute: Po ibaian uste baino kokaina-hondakin gehiago aurkitu zuten. Beste ikerketa batzuen arabera, gorputzak metabolizatzen ez duen kafeina ere itsasoraino joaten da. Askotariko substantziak, komuneko zulotik doazenak.

Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) botikek edateko uretan eragin ditzaketen kalteei buruzko ikerketa bat egin zuen. Botikak osasunerako ezinbestekoak direla nabarmenduta ere, zehaztu zuen ikerketa ugari egin direla azken urteetan, eta guztiek eman dituztela antzeko ondorioak, bai araztegiatiko uretan, bai ur-sorburuetan, bai edateko uretan. OMEren esanetan, edateko uretan ere aurkitu izan dituzte botika horien arrastoak, baina oso toki gutxitan eta kopuru txikietan. Hala ere, ikerketak ondorioztatu zuen oso kantitate txikietan sumatu dituztela arrasto horiek, eta ez dutela pertsonen osasunarentzat arriskurik. Horregatik, OMEk ez du beharrezko ikusi edateko uraren tratamendurako azpiegitura eta tratamendu berriak ezartzen hastea.

Horren orde, bestelako aholkuak eman ditu OMEk: prebentzian eragitea –ikerketa batzuen arabera, Europako herriarren %20k komuneko zulotik behera botatzen ditu botikak, hartu gabe–; araztegiatiko urak tratatzeko azpiegiturretan ikerketa bultzatzea ere aholkatu du, botikak uretatik kanpo edukitzeko moduak aurkitzeko.

2. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna.

1. Zer arazo dago botiken gai kimikoekin?

- a) Erreketara eta itsasora heltzen direla.
- b) Gorputzak osagai guztiak izerdian kanporatzen dituela.
- c) Komuneko hodietan tratatzen direla.

2. Zein da ondorioa?

- a) Ikerketa ugari frogatu dutenez, botikak indarra galtzen ari direla.
- b) Hormonek botiken osagaietan eragina dutela.
- c) Osagai kimikoek arrainen hormonetan eragiten dutela.

3. Zer dakigu ikerketez?

- a) Aspalditik ikertzen dela.
- b) Ia ez dagoela ikerketarik.
- c) Bost urtean egin dituztela ikerketak.

4. Zer ikusi zuten Gernika-Lumon?

- a) Zenbait arrainek arren sexu-zelulak zituztela.
- b) Zenbait ostra eta muskuilutan sexu-organoen aldaketak.
- c) Sexu-zelulen kopurua handitu egiten zela hermafroditetan.

5. Zein zen arrazoia?

- a) Detergenteak eta kosmetikoak.
- b) Hormonak eta sistema endokrinoak.
- c) Hazteko eta ugaltzeko sistemak.

6. Zer aurkitu dute ibaietan?

- a) Frantzia, Kanadan eta Estatu Batuetan arrainetan sexu-aldaketak.
- b) Espainiako estatuan zein Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan arrain hermafroditak.
- c) Espainiako estatuan arrainetan sexu-organoetan aldaketak eta Frantzia botiken hondakinak.

7. Zer esaten da testuan OMEri buruz?

- a) Ikerketak egin dituela botikek edateko ura kutsatzen duten ikusteko.
- b) Botikak osasunerako kaltegarriak direla nabarmentzen duela.
- c) Emaizta desberdinak lortu dituela ur-araztegietan eta ur-sorburuetan.

8. Zein dira emaitzak?

- a) Ondorioak ez dira larriak, baina OMEk uraren tratamenduan aldaketak proposatzen ditu.
- b) Nahiz eta botika-arrastoak aurkitu dituzten, ez dira kaltegarriak osasunerako.
- c) Ikerketen ondorioz, uraren tratamendu berriak egingo dira.

9. Zer aholku eman du OMEk?

- a) Prebentzioa eta ikerketa bultzatzea.
- b) Botiken tratamendua osorik egitea.
- c) Araztegietako urak tratatzea.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

2. HE

IRAKURMENA

■ **2. ariketa**

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

UDAL BERRIAK

Konpainiako animaliekin bizitzea

Ekainaren 28an, 25 lagun inguruk parte hartu zuten foro ireki batean, gehienak animalien jabeak eta gaiarekin sensibilizatutako pertsonak. Honako hauek **10** ziren bertan: animalien gorotzak jaso beharra, animaliak gaizki tratatzea gogor **11** beharra eta jabeek animaliak kontrolpean eramateko ardura hartu beharra. Ez da gauza bera, ordea, lotuta eramatea; **12**, izaki bizidun guztiek bezala, animaliek ere aske sentitzeko, korrika egiteko, jolasteko eta energia deskargatzeko beharra dute, eguneko une jakinetan bada ere.

Arraza arrisksuetako txakurrei dagokienez, kate laburrez lotuta eramatea onartu zen; baina, **13** egon ziren muturrekoaren derrigortasunari buruz. Bestalde, zenbait proposamen ere egin ziren, hain zuzen ere, udalerriko **14** bat presta dadin animalia horiek aske ibil daitezen, betiere jabeen begiradapean.

Gaiari dagokionez, bertaratutakoek argi ondorioztatu zuten arazoa ez dutela animaliek eragiten, jabe **15** baizik.

Bestalde, kaleko katuen elikadura dela eta, gehiengoaren iritziz, ezin da gaizki hartu animalia horiei jaten ematen dieten pertsonen sensibilitatea eta jarrera **16**. Dena den, modu higienikoan egitearen aldeko proposamena egin zen, alegia, pentsua edo janaria ontzietan uztea, eta gero pertsona horiek kentzeaz arduratzea.

Foroaren **17** bat herritarren iritziak jasotzea izan zen, animaliei buruzko ordenantza bat sortzeko. Forora bertaratu zirenek nabarmendu zuten etorkizuneko **18** horiek kontuan hartu beharko luketela pertsonen eta animalien arteko elkarbizitza. Aipatu zen, esaterako, txakurren, zaldien zein bestelako espezieen konpaina **19** ari direla adinekoentzako zenbait egoitzatan, umeentzako hainbat ospitaletan, presondegitan eta abarretan terapia psikologiko gisa. Bertaratutako zenbaitek azpimarratu zuten, horixe da, hain zuzen ere, jarraitu beharreko bidea: animaliak eta pertsonak elkarrengana hurbiltzea, gaiaren inguruko **20** berri bat zabaldu dadin.

<Zallainfo>, 2012ko uztaila-abuztua. Egokitua

Etxe-kaleratzeetarako protokoloa

Krisiaren eta langabeziaren ondorioz, milaka familia egoera jasanezinera iritsi dira, eta ezin dituzte beren oinarrizko **21** ere bete. Horren eraginez, askok etxea galdu dute ezin izan dutelako hipoteka ordaindu. Errealitate horren aurrean, Zallako Udalak erabaki du protokolo bat abiaraztea kaleratzeak gerta daitezkeenetan, eta horrek zenbait **22** jasotzen ditu.

Zinegotzi bat izendatuko da, udal-teknikariekin eta Enkarterrietako Mankomunitatearekin lan egingo duena kaltetutako pertsonari **23** emateko. Era berean, erabateko diskrezioa ziurtatuko zaio, eta **24** telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa emango zaizkio.

Gainera, Udalak hitzematzen du harremanetan jarriko dela etxetik kaleratzeko prozesua martxan jarri duen bankuarekin, batez ere denbora-tarte mugagabea **25** exijitzeko eta kaltetutako pertsonaren egoeraren berri emateko. Bankuaren edo kuxxaren jarreraren arabera, Udalak berrikusi egingo ditu erakunde horrekin dituen harremanak, eta lotura **26** utziko du negoziazioetan emaitzarik lortzen ez bada.

Etixerik gabe gelditu diren pertsonen behar-beharrezko **27** emateko, eta alokairu soziala erreferentzia nagusizat hartuta, Udalak autonomia-eta foru-erakunde publikoekin lan egingo du, eta udalerriko etxebizitzaren inbentarioa egingo du.

<Zallainfo>, 2013ko urtarrila-otsaila. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia.

- 10.** a) trukatu
 b) harrapatu
 c) adostu
 d) leporatu

- 11.** a) zigortu
 b) lehiatu
 c) damutu
 d) aritu

- 12.** a) bide batez
 b) izan ere
 c) beraz
 d) baina

- 13.** a) eztabaidak
 b) mintzamenak
 c) adostasunak
 d) azterketak

- 14.** a) lanbideren
 b) eremuren
 c) aipamenen
 d) aurkibideren

- 15.** a) zorrotzek
 b) arduratsuek
 c) baketsuek
 d) axolagabeek

- 16.** a) alferra
 b) bihurria
 c) lotsatia
 d) eskuzabala

- 17.** a) helburuetako
 b) irudietako
 c) guneetako
 d) zerrendetako

- 18.** a) baimen
 b) epe
 c) arau
 d) aitzakia

- 19.** a) jasaten
 b) bultzatzen
 c) ezkutatzen
 d) oztopatzen

- 20.** a) ohore
 b) ikuspuntu
 c) oker
 d) oihartzun

- 21.** a) burutazioak
 b) iragarkiak
 c) premiak
 d) aurrekontuak

- 22.** a) ekintza
 b) erakusketa
 c) zaintza
 d) murrizketa

- 23.** a) irabaziak
 b) aholkuak
 c) balioak
 d) ikurrak

- 24.** a) prestakuntzarako
 b) aurrezkirako
 c) arretarako
 d) lehiaketarako

- 25.** a) egonaraztea
 b) ikustaraztea
 c) igoaraztea
 d) geldiaraztea

- 26.** a) bertan behera
 b) gainezka
 c) aurrez aurre
 d) galdezka

- 27.** a) adibidea
 b) larritasuna
 c) ondasuna
 d) irtenbidea

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

2. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

INFORMATIKA ETA EKOLOGIA: UZTARRI BEREAN?

Informatikak eta ekologiak elkarrekin zerikusi gutxi dutela pentsa dezake batek baino gehiagok, baina ez da hala. Etxe bakoitzean hainbat gailu informatiko izaten da gaur egun: mahai gaineko ordenagailuak, eramangarriak, tableta ertainak eta txikiak, liburu elektronikoak... **28** Arreta pixka bat jarritz gero, bada modua horiek guztiak era ekologikoan erabiltzeko. Gailu horiek jokoera berdeagoarekin erabiliz gero, gehiago iraungo dute eta, gainera, dirua aurreztuko dugu.

Merkatuan dauden aukera ugarietatik ordenagailu bat aukeratu aurretik bakoitzak zertarako balio duen eta zer-nolako berezitasunak dituen jakitea komeni da. Era horretan, norberari gehien komeni zaiona hautatu ahal izango da: zenbat denboraz eta non erabiliko den, zer-nolako aplikazioak behar izango diren, eta abar. **29** Adibidez, etxean noizbehinka erabiltzeko, nork bere zaletasunetan-eta, aski da tableta batekin. Lanerako baldin bada, egunero hainbat ordutan erabiltzeko, mahai gaineko ordenagailu bat erostea da onena. Erabileraren alderdia ez ezik, energia-kontsumoarena ere kontuan hartzea da. Ordenagailu eramangarriek mahai gainekoek baino energia gutxiago kontsumitzen dute, eta tabletek, berriz, eramangarriek baino gutxiago.

30 Lagungarria izaten da modelorik ekologikoena zein den jakiteko: zer-nolako materialekin eginga dagoen (batzuk besteak baino kutsatzaileagoak dira); kontuan hartzen ote duen ondoren birziklatzeko aukera; edo ingurumen-etiketarik duen. Ingurumen-txostenak ere lagungarriak izan daitezke. Greenpace erakunde ekologistak, esate baterako, urteak daramatza gisa horretako txostenak argitaratzen: *Elektronika*

Berdeagoaren aldeko Gida edo *Elektronika Berdearen Inkesta*, adibidez. **31**

Eraginkortasun energetiko handia duten modeloek argindar asko aurrezten dute. Erabiltzailearentzat mesedegarria da hori, eta baita ingurumenarentzat ere. Ekoizleek gero eta gailu eraginkoragoak egiteko joera dute, gero eta baliabide gutxiago kontsumituko dutenak.

Energia aurrezteko ohiturak hartu behar dira. Zenbait ordutan ordenagailurik erabiliko ez bada, hibernatze modua aktibatzea komeni da, gutxiago kontsumitzen duelako, eta pantaila itzaltzea. Sistema eragile bakoitzak bere erara aktibatzen du hibernatze modua denbora bat igaro ondoren eta badira ordenagailua bera itzaltzen dutenak ere. **32** Era berean, programa informatiko batzuek lagundu egiten dute argindar gutxiago kontsumitzen eta, bide batez, ingurumenaren aldeko kontzientzia hartzen.

Ordenagailuaren bizia luzatzeak dirua aurrezteak dakar, baita hondakin gutxiago sortzea eta baliabide natural gutxiago behar izatea ere. **33** Beste aukera bat da ordenagailu zaharra norbaiti oparitzea, edo gobernu kanpoko erakunde bati ematea. Ordenagailua ez badabil edo aldatu behar badugu, birziklatzea da hurrengo pauso ekologikoa. **34**

Consumer, 2013ko urtarrilaren 1a. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Txertatu testu zatia.

- A. Bestela, gerta daiteke erabili ez eta bazterrean geratzea, edo behar baino baliabide gehiago erabiltzea, alferrik.
- B. Bestalde, ordenagailuen etiketak informazio jakingarria ematen du bakoitzaren ezaugarrien inguruan.
- C. Horietako bakoitzak energia kontsumitzen du, eta ondorioz ingurumenean eragiten du.
- D. Gainera, beste zenbait neurri ere har daitezke energia gutxiago gastatzeko: pantailari distira kendu, gailu hari gabeak deskonektatu erabiliko ez badira, disko gogorra desfragmentatu hobeto funtziona dezan...
- E. Bi aukera daude horretarako: berria erosteko asmorik ez badugu, gertuen dugun Garbigunera eraman dezakegu. Eta berria erosiko badugu, dendak hartu beharko digu zaharra, doan.
- F. Ordenagailuak eta telefono mugikorrek ekoizten dituzten konpainia nagusiek ingurumenaren arloan zer-nolako jokaera duten azaltzen da argitalpen horietan.
- G. Birusek informazioa galtzea eragin dezakete, besteak beste. Gehienetan pantailan karaktere bereziak erakutsi besterik ez dute egiten, baina kasu askotan fitxategiak ezabatu, disko gogorreko informazioa nahasi edo ordenagailua trabatzera irits daitezke.
- H. Zenbait osagai eguneratuz gero, RAM memoria esaterako, edo ahalmen handiagoko disko gogorra jarritz gero, luzaroago iraungo digu.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak							

Sobera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN ORRIAN

2. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.

**ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN
EGIN BEHAR DITUZU.**

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartuta, **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zuk udal bateko Herritarrentzako Arreta Bulegoan lan egiten duzu. Azken egunetan herritar askoren kexak jaso dituzu osasun zentrorra sartzeko aspaldian hasitako obrak direla eta.

Idatz iezaiozu eskutitza alkateari zer gertatzen den eta nolako kexak jaso dituzun azaltzeko eta jendeari zer erantzun behar diozun galdetzeko.

■ 2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, **iritzia** eman behar duzu **herriko aldizkarian**, *Herritarren txokoa* sailean.
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure lagun batzuek ikasketak amaitu bezain laster atzerrira joateko asmoa dute lan bila. Zuk, ordea, zalantzak dituzu.

Herriko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu.

Idatzi zein den zure inguruko jendearen egoera, zein diren jendeak atzerrira joateko dituen arrazoiak eta zer iritzi duzun.

Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)

Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)



2. HE / IRAKURMENA

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: « BOTIKEN BIDAIA LUZEA ARRAINEN HORMONETARA »

1.	A	6.	C
2.	C	7.	A
3.	B	8.	B
4.	B	9.	A
5.	A		

- 2. ariketa: hutsuneak bete.
- Irakurgaia: « UDAL BERRIAK »

10.	C	11.	A	12.	B
13.	A	14.	B	15.	D
16.	D	17.	A	18.	C
19.	B	20.	B	21.	C
22.	A	23.	B	24.	C
25.	D	26.	A	27.	D

- 3. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: « INFORMATIKA ETA EKOLOGIA: UZTARRI BEREAN? »

Hutsuneak	28	29	30	31	32	33	34
Testu-zatiak	C	A	B	F	D	H	E

G aukera sobera dago.

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO